

Begoña, borrokan dirauzu

«EGUNGO» garaiki ez dira politikak, baina nik politikak bihurtzen ditut. Hori izan bait da hartu dudana erabakia. Buru-belarri sarturik nagoelako nire ustez egin behar dudanetan eta pozik nagoelako egiten ari naizenarekin».

«Zorionsu naiz egiten ari naizenarekin. Jabetzen naiz arriskuaz, erabat, baina neure bizitza nirea izateari utzi diola konturatu naiz. Orain nire bizitza bigarren mailan dago, lehentasuna borrokari ematen diot, hemengo herrialde hauek beste herriek eragindako txikizioak sufritzeari utzi diezaioten».

«Nik ezin dut esan 'lurralde hau ez da nirea' delako hura, ezta ere 'borroka hau ez da nirea'. Nola ba ez da izango nirea? Borroka ez du mugarik. Injustizia dagoen lekuan, bertatik borrokatu egin behar da». Hitz horiek bidali zure familiari bidalitakoak dira El Salvadoroko barnealdia joan aurretik, pozez eta solidaritatez beterik, besteei bizitasuna emateko gogo handiz. Hala ere, bala batzuk zenuen ametsa eten egin zizuten, oso gogorra izan zen guztiarentzat, modu batean edo bestean hemendik zure bidetara jarraitzen ahalgintzen ginenontzat, oso gogorra izan zen zure gorputa Tuteran, Tafalla eta Iruñerian iritsi zenean. Hasiarako omenaldian negarrez ginen, inpotentzia eta amorruz beterik, eta esan genezakeen gauza bakarra, zure urratsei jarraitzen ahalgintzako ginelan, bakoitza bere eran.

Geroago, autopsian eta horren ondoren Madrilgo Auzitegiko Anomali Ikertegian egiztatu zen guztiok somatzen genuena: garondora eta bularezurera botatuko tiroek hil zintuzten, biak oso gertutik botatukoak; besondo eta izterretan lau zulo zentituen, zerbait zorrotzarekin eginda, eta bazenuen ere zulo bat izterrean, gerriko hezur-krakoa eragin zuena. Orduko ez genuen negarrik egiten, baina amorruta eta inpotentzia areagotu zitzaizkigun.

Hurrengo egunean Garesera joan ginen, eta bertan nahiko gente batu ginen. Han ginenak ez ginen zuri agur esateko bildu, ez zintuztela hil esateko

baizik, gure borrokan bizirik zeudela artean, injustiziaren aurka borrokatu diren beste hildako hainbat gizon eta emakume, bezala, bihotz barnean zaituztegu.

Omenaldia xumea eta polita izan zen, zuri gustatuko zitzaizukeen modukoa. Ondoren kanposantura joan ginen eta han Eusko Gudariak eta Internazionala abestu eta gero etxeratu ginen triste baina aldi berean pozik, bizitasunez bete bait gintuzun.

El Salvador, herri txiki baina hain bihurtzen den horretara hurbildu gintuzun, hamaika urte gerran dagoen herri horretara, larogei mila hildako, hamar mila desagertutako eta milaka zauritu eta elbarritu izan dituen.

Haiek utzi zenituenetik hainbat gertaera izan dira, nekazariak, langileak, borroko buruzagiak, beren seme-alaben bila dauden amak... hiltzen, torturatu, desagertaratu eta espetxeratu segitzen dute, armadak eta heriotz eskuadroak. Eta hori guztia, gizarte bidezkoago eta berdinduagoaren bila ibiltzeagatik, bakearen alde borrokatzeagatik.

Hilketen zerrenda luze horretan zenbait internazionalistena ere aipatu egin behar da, halaber Marta Gonzalezena gogora ekarri nahi dizut, oroitzen al zara?, Nikaraguan, El Salvadorreko ospitalean elkarrekin egiten zenuen lana. Zenbat ordu iragan zenuen hemengo eta hango borroka hitz egiten, matxismoaz, ekarpen berriez, pasialdiak, eztabaidak, zenbat ordu elkarrekin! Zuk El Salvadorreko burkideekin joatea erabaki zenuenean, berak ausartzen ez zela, ez zegoela prestaturik artean zioen. Zuk alde egiterakoan, bera El Salvadorreko inguru marginaletara joan zen lan egitera eta erori zinenen, zu bezala inpotentziat beterik, bizitasuna emateko gogoarekin, zure izena, 'Begoña' hartu zuen ezinez eta zure urratsei jarraiki mendira egin zuen burkideekin. Laburra baina sakona izan zen bertan egin zuen egonaldia. Abenduaren 24ean, Gabon Gaua ospatzen zeudela armadak, zeuden kanpamenduari

eraso egin zion eta bizitza galdu zuen. Urte gogorra izan zen hura, eta zuen lekua beteko duenik aurkitzen zaila da, baina bizitzak aurrera egiten du eta borroka ere aurrera doa. El Salvadorreko borroka horrek amerikar Imperialismoari ikustarazi dio gerra ez dela konponbidea, herri oso baten borroka ez duela atzera egingo armetan milioika dolar gastatu arren, konponbidea negoziaketa dela ikustarazi dio. Arazoan parte hartzen duten bi aldeek (Gobernua-Armada eta FMLN) prozesu negoziatzailea duela urte batzuk hasi zen eta aurtun jauzi kualitatibo garrantzitsua izan du, NBERen (Nazio Batuen Erakundearen) bitartez. Suetena hurbil dagoela dirudi. Hala ere, Armadako eta ultra-eskuindarreko zenbait sektorek horretarako trabak eta oztopoak baino ez dituzte jartzen, horrenbesteko sarraskien eragileak epaiturik izatea nahi ez dutelako. Hilketa horien artean aipa ditzakegu Monsiñore Romerorena, Jesuena, Begoñarena, Martarena... Horrela bada, konponbidea ez da erraza eta burkideei beste saio negoziatzaile serioa edota duten indarraren frogara erakutsi baino beste aukerarik ez diete uzten.

Hemendik, Euskal Herriatik bakea, Gizarte Justiarekin batera aurki izango direlakoan gaude eta hil zintuztenekin jakin bezate ezingo dutela atsedetik izan, zenuen Justiziari ametsa ez bait da desagertuko.

Datorren asteartean, hilaren hamarrean eta arratsaldeko zortzietan Gareseko kanposantuan elkartuko gara, gizon eta emakume borrokalari, solidario eta internazionalistak, zure omenean eta oroitzapenean.

Begoña ez zaitugu ahazten. El Salvador elkartasuna.

PEIO GOYACHE

MEDIKU INTERNAZIONALISTA ETA ASKAPENAKO MILITANTEA
*Erredazioan itzulita

Euskal Herria ez da berdina

BADU HILABETE parrasta bat aipu zela, abiatua zela. Gauzatua da orai: Lituania erresuma independente bat da. Suedia eta Norvegia bezelako erresuma ttipi batzuzat besterik izan da erresuma berria onartzeko. Hor dira Europako erresumak, Ameriketako Estatu Batuak: Txina bera, egia erran Sobiet Batasunak berak onartu ondoan, hortaratu arte nekez erran baitzitekeen Lituania zinez libre zela.

Bainan badakigu, aski erran digute, Lituaniaren kasua ez dela berdina. Ez daitekeela Euskal Herriari, ez Kataluniari konpara. Gu, aspalditik gaude Frantzia eta Espainiaren meneko. Lituania aldir, joan den gerla ondoan zuen beretua Sobiet Batasunak.

Erraten ez digutena, 1919an lortu independentzia zuela galdu Lituaniak 1946an. 1919 arte, batean Poloniar, bestean Erruso edo Pruziar, ez zelarik bizpahiru zatitan, bizi izan da Lituania... 1386an Polonia eta Lituania errege beraren meneko izan zirenetik (Baxe Nabarre eta Frantziarena 1530koa da!). 24 tomatoko Larrouse zahar batetan irakurtu dugu, «Poloniar ez direnak, aletanzen edo errotzen ari dira; gero eta gehiago arrotz dira elgarrentzat Lituaniarrak!».

Historioak erakusten digu, Lituaniak baino askoz ere berantago galdu duela bere independentzia Euskal Herriak eta bien arteko diferentzia hauxe da: guk dugula ttanto gehienik eskutan alde horretatik, eta

ez haiek, denek sinets arazi nahi liguketek bezela.

Ukranien kasua. Beha diezaiogun orain Ukranian. Ostopena ekonomian dauka: Ukranien laborantza beharrezkoa zaio Sobiet Batasunari. Nik beti entzun dut Japoniaren xantza dela laborantzarik ez izatea, beste herrialdeek subvencionatu laborantzarik bizi baita. Europaren traba haundietatik, bere laborantza, diru asko jaten baitio. Bainan kurioski Sobiet Batasunaren kasuan ez da horrela...

Arrazo berezi bat badauka Ukranian: bere 52 milioi jendeetarik 11 Errusok direla. Nola bizi liteke horrelako minoria bat Ukrania independentean, diote? Nago, nola bizi izan diren 41 milioi Ukranian, oro har 11 milioi Errusiarren meneko, 83 urtez! Bitxi da zer kezka sor arazten dituzten minoriek... kasu batzutan!

Beste bitxikeria bat: Ukranian badu ordezkari bat Nazio Batuen Erakundeak, Espainia edo Frantziak bezela. Nik uste nuen estado independenteek dituztela ordezkariak Nazio Batuen Erakundeak. Iduriz ez, eta nehorik ez dit oraindik esplikatuta zer den Nazio Batuen partaide den herrialde ez-independiente hori.

Nehorik ez du aipatzen Ukranian izate historiko edo nortasuna falta zaizkionik. Noizkoa ote du bere independentzia Ukranian? 1918koa! Ordu arte Ukranian lurrak Errusia, Polonia, Autrixa, Hungria edo... Lituaniaren artean zatikatuak izan dira! Euskal Herria Frantzia eta Espainiaren artean beze-

la. Eta denek normal hatxemaiten dute Ukrania independente bilaka dadien historiorik gabe, batere autodeterminaziorik ere gabe! Aitor dezagun halere, Lituania, Ukrania eta beste ez daitezkeela Euskal Herriari konpara. Diferentzia ez da historia, nortasun edo ekonomiatik aldetik heldu. Diferentzia, politika gizonetarik dator. EA, EAJ, EE eta HBko buru handi guztiek aho batez erran balezate autodeterminatu behar dugula, guk ere baginuke eskubide hori. Ez erran herriaren gehiengo ez dagoela bat idaia horrekin. Sobiet Batasuneko herriak ez zuen Gorbachev nahi, Gorbachev boterean sartuz geroz, gero eta gutiago jaten baitute. Bainan estado kolpeak huts egin du, zenbeit oldartu direlako eta herriaren parte bat jarraiki zaielakotz. Gero, ondolik etorri dira besteak, haizea norat zihoan ikusi eta.

Ukrania, Lituania, Georgia eta bestetan gizon politikoak dira xutitu, mintzatu eta herria jarraiki zaie. Ipar ala hego Euskal Herrian, gizon politikoak guti mintzo dira egun hauetan. Mintzo direlarik, zornat ez dira «arreka» ari. Oihanetxezaharrek aito zaharra bezela! Mozkuko aparatxikak duela zenbeit egun bezela, haizea norat zihoan senditua ez zutelarik. Non dira orain? Alderdiaren eta ez Herriaren zerbitzuko ziren!

XIPRI ARBELBIDE

KAZETARIA

BERRIAK ZIRI



F. FERNANDEZ ORDÓÑEZ
Espainiako Kanpo Arazoetarako ministroa
EL PAIS
1991-IX-9

«Euskal eta kataluniar politikariek badakite independentziak Europako Komunitatetik eta NATO erakundetik irtetzea suposatuko lukeela»



ANGEL COLOM
Esquerra Republicana de Catalunya idazkari nagusia
DIARIO 16
1991-IX-9

«Kataluniako Parlamentuan Jordi Pujolek Kataluniaren independentzia aldarrikatu behar du, edo bestela isilik egon»



VITAUTAS LANDSBERGIS
Lituaniko Lehendakaria
EL SOL
1991-IX-9

«Nazionalismoek gertaeren norabidean eragina izango dute eta Europako garapen politikoa egituratuko dute»



JOSE AMEDO
Espainiako Poliziako komisarioa
EL DIARIO VASCO
1991-IX-9

«GALek egindako atentatuek ETaren amaieraren hasiera suposatu zuten, beraz atentatu horiei esker hainbat pertsona bizirik dago, beharbada»

ZAKILIXUT

© Olariagak

